

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 806/2024 Erabakia, abenduaren 23koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko lanpostu zerrenda aldatzeari

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden edo antzeko antolaketa-tresnen bidez egituratuko dute beren antolaketa, eta, gutxienez, honako hauek jasoko dituzte: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, zer kidego edo eskalari atxikita dauden, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak".

Ikuspegi horretatik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.1 artikuluan, lanpostu-zerrendak definitzen dira, EAEko administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko, langile-beharrak zehazteko, lanpostuak betetzeko eskatzen diren baldintzak definitzeko eta lanpostu bakoitza sailkatzeko tresna gisa, eraginkortasun-, efizientzia- eta arrazionaltasun-irizpideen arabera. Zehazki, lege horren 45.2 artikuluan xedatzen denez, lanpostuen zerrendek, batera edo bereizita, aurrekontuetan zuzkidura duten egiturazko lanpostu guztiak jasoko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordeta daudenak.

Era berean, 11/2022 Legearen 46. artikuluan ezartzen denez, lanpostu-zerrendek honako datu hauek eman behar dituzte nahitaez horietako bakoitzerako: a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dauden dotazioak. b) Zer sail edo zentro organikori dagoen atxikita. c) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuen kasuan, lanbide-sailkapeneko taldeak edo azpitaldeak, eta, hala badagokio, atxikita dauden kidegoak, eskalak edo beste sistema batzuk. (...) e) Lanpostuak betetzeko sistema, dela lehiaketa, dela izendapen askea, eta, hala badagokio, zein administrazio publikori dagoen irekita lanpostu hori. f) Lanpostuari lotutako ordainsari osagarriak. g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data. h) Arduraldi-araubidea. i) Lanpostuaren izaera berezia edo normalizatua.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko lege horrek 45. artikuluan 3. apartatuan ezartzen duenez, lanpostuen zerrendak eta haien aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean, foru-aldundiei edo toki-erakundeei badagozkie.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen antolaketa-egituren berezko bilakaerak hainbat aldaketa eragin ditu, eta aldaketa horiek lanpostu zerrendan dagokion aldaketa egitea eskatzen dute.

Zehazki, APZ monitorearen dedikazioa handitu da (95.005 kodea), eta ehuneko 100ekoa izatera igaro da, kontuan hartuta zer premia dauden autonomia pertsonaleko zentroan erabil-tzaileei arreta emateko.

Bestalde, 2024rako indarrean dagoen aurrekontuaren neurri osagarri buruzko uztailaren 10eko 10/2024 Foru Arauak, hirugarren xedapen gehigarrian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakun-dea erakunde autonomoan 5 plaza sortzeko baimena ematen du. Honako hauek dira plaza horiek:

Lehenik eta behin, eta antolaketa-egitura berri bat diseinatzeko proiektuaren esparruan, gizarteratzearen eta indarkeria matxistaren arloa izeneko arlo berri bat sortzeari ekin zaio. Zuzendariorde tekniko lanpostu bat esleitu zaio.

Bestalde, 2 erizain dotazio sortu dira Txagorritxu egoitzan, gaueko txandari erantzuteko, erizainen presentzia handiagoarekin. Helburu horrekin berarekin, Amurrioko egoitzan erizain dotazio bat sortu da, eta horrek, gainera, hasierako behin-behinekotasunari erantzun arren, egoeraren araberako izaera hori pixkanaka lausotu duten funtzioak egiturazko gisa finkatzeari erantzuten dio.

Era berean, administrazio bereziko goi mailako teknikari bat sortzen da, Desgaitasuna duten pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoari atxikia, arloari laguntza juridikoa emateko eta laguntza-neurriei dagokienez.

Amaitzeko, gaur egun Gizartegintza Arloari atxikitako lanpostuen atxikipena aldatu egingo da, Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Zuzendariordetza berria langilez hornitzeko.

Aurreko guztia aintzat harturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako zuzendaritzak lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena egin du, sindikatuarekin bidezko negoziazioak egin ditu eta erakunde autonomoko administrazio kontseiluari aurkeztu zaio azter dezan. Kontseiluak erabaki du lanpostuen zerrendaren aldaketa hau Foru Gobernu Kontseiluari helaraztea, onar dezan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 8.m) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.b) .2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Ekonomia Jardueren eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 9.d) artikuluan aurreikusitakoari dagokionez, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, bere funtzio betearazlea betez, Foru Aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzea.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, honako xedapen hauen arabera:

- Autonomia pertsonaleko zentroari atxikitako monitore-lanpostuaren dedikazioa aldatzea (kodea: 95.005): ehuneko 100ekoa izango da aurrerantzean.

- I. eranskinean jasotako lanpostuak sortzea.
- II. eranskinean jasotako lanpostuen atxikipena aldatzea, bertan adierazitako moduan.

Bigarrena. Erabaki honek Foru Gobernu Kontseiluak onartu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzeari kalterik egin gabe.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka, argitaratu eta biharamunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 23a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken diputatua
GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
MIREN SARATXAGA DE ISLA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ffbs/
**LANPOSTUEN ZERRENDA
I ERANSKINA
LANPOSTUAK SORTZEA**

PAG.- 1

KODEA	IZENA	L M	DED. ERR.	BETE. MODUA	ADMINIS.	LANPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK				LANSARIAK		
						SAIKAP. T E A K	IKASK. TITUL.	HIZKUN. ESKAKI.	BERAR. EZAG.	D.O. MAIL	BERARIA. OSAGARR.	LANTOKIAREN HERRIA

ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

ARLOA : 80.2.02 ADINEKOAK

UNITATEA : 80.2.02.3 TXAGORRITXU EGOITZA

26.081	ERIZAINA		EB	L	GOFE	B 2 1 2	501	2 01/2024		20	24.995,46	VITORIA-GASTEIZ
26.082	ERIZAINA		EB	L	GOFE	B 2 1 2	501	2 01/2024		20	24.995,46	VITORIA-GASTEIZ

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 2

UNITATEA : 80.2.02.3 TXAGORRITXU EGOITZA

Postuen osoa 2

UNITATEA : 80.2.02.7 AMURRIOKO EGOITZA

26.083	ERIZAINA		EB	L	GOFE	B 2 1 2	501	2		20	24.995,46	AMURRIO
--------	----------	--	----	---	------	---------	-----	---	--	----	-----------	---------

UNITATEA : 80.2.02.7 AMURRIOKO EGOITZA

Postuen osoa 1

ARLOA : 80.2.02 ADINEKOAK

Postuen osoa 3

ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

138.001	LANGILEEN ARLORO GOI MAILAKO TEKNIKARIA		EB	L	GOFE	A 2 1 1	607	3 01/2024		25	34.587,28	VITORIA-GASTEIZ
---------	--	--	----	---	------	---------	-----	-----------	--	----	-----------	-----------------

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 1

ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

Postuen osoa 1

ARLOA : 80.2.06 INKLUSIOA ETA INDARKERIA MATXISTA

133.001	GIZARTERATZEA ETA INDARKEKIA MATXISTA ZU		B	I	EAE	A 1		3		29	51.976,26	VITORIA-GASTEIZ
---------	---	--	---	---	-----	-----	--	---	--	----	-----------	-----------------

ARLOA : 80.2.06 INKLUSIOA ETA INDARKERIA MATXISTA

Postuen osoa 1

ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Postuen osoa 5

UNITATEKO LANPOSTUAK GUZTIRA : 5

**Lanpostu-motari dagozkion gakoien azalpena:**

EB EZ BAKUNA
B BAKUNA

Lanpostua betetzeko moduari dagozkion gakoien azalpena:

L LEHIAKETA
I IZENDAPEN ASKEA

Eskalei dagozkien gakoien azalpena:

2 ADMINISTRAZIO BEREZIA
22 ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK
221 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK
222 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA
213 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA
212 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
211 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
1 ADMINISTRAZIO OROKORRA
12 ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK
13 ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK
15 ADMINISTRAZIO OROKORRA-KDEAKETA
14 ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK
11 ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK
3 GAIKUNTZA NAZIONALA
32 GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILTZA-DIRUZAINTZA

Lanpostua betetzeko moduari dagozkion errekirimendu espezifikoen azalpena

001 ENPRESAKO ERIZAINTZAKO DIPLOMA
002 GIDABAIMENA, D MOTAKOA
003 GIDABAIMENA, B MOTAKOA
004 ARRISKUEN PREBENTZIORAKO IKASTARO AURRERATUA
005 LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA
010 ERIZAIN LANETAN URTEBETEKO ESPERIENTZIA
011 KUDEAKETAN URTE 1 ESPERIENTZIA EDO 2 URTE ERIZAIN
012 KUDEAKETA LANPOSTUETAN BI URTEKO ESPERIENTZIA
013 SEXU DELITUGEEEN ERREG. ZENTRALAREN EZEZKO ZIURTAG.

Ikasketa Tituluen azalpena:

100 ESKOLA ZIURTAGIRIA
200 ESKOLA GRADUATUA
300 LEHEN GRADUKO LANBIDE HEZIKETA
301 LH I ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA
302 LH I OSASUN ARLOA
303 LH I OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKOESEZ
304 LH I ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA
305 LH I METAL ARLOA
306 GIZA-OSASUN ARRETAKO TEKNIKARIA
400 BBB EDO LH II
401 LH II ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA, INFORMA
402 LH II NEKAZARITZA ARLOA
403 LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA ARLOA
404 LH II OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKO ESPE
405 LH II METAL ARLOA
406 LH II GIZARTE EGOKITZAPENEN EDO EZINDU PSIKIKOEN
500 UNIBERTSITATE DIPLOMA
501 ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
502 GIZARTE LANEKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
503 INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA ADARRA
504 GIZARTE GRADUATUA
505 FISIOTERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.araba.eus/ifbs/

506	LAN-TERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
507	OHO-KO IRAKASLEA
507.001	OHO-KO IRAKASLEA, SENDABIDEZKO PEDAGOGIA
508	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE DI
509	INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA ADARRA
510	BIBLIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA
511	GIZARTE HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
512	INFORMATIKAKO INGENIARI TEKNIKOA
513	HEZK-GIZ. ZIENTZ.DIPL-LIZ GIZ.HEZ.ELKARG.GAIKUNTZA
600	UNIBERTSITATE LIZENTZIA
601	SOZIOLOGIAN LIZENTZIADUNA
602	INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA
603	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA
603.001	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, GERIATRIAKO ESPEZIALITATE
603.002	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BIRGAITZEKO ESPEZIALITATE
603.003	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIA
603.004	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, PSIKIATRIAKO ESPEZIALITAT
603.005	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BARNE MEDIKUNTZAKOESPEZI
603.006	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ESP
604	PEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA
605	PSIKOLOGIAN LIZENTZIADUNA
606	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA
607	ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA
608	GOI-MAILAKO INGENIARITZA INDUSTRIALA
609	PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

II. ERANSKINA**ATXIKIPEN-ALDAKETA**

KODEA	IZENA	EGUNGO UNITATEA	UNITATE BERRIA
130.001	PREBENTZIO KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
130.002	PREBENTZIO KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
130.003	PREBENTZIO KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZE ETA INDARKERIA MATXISTA
21.003	PROGRAMA SEKTORIALEN KOORDINATZAILEA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
75.001	GIZARTE-ZERBITZU BALIOANIZTUNETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
75.002	GIZARTE-ZERBITZU BALIOANIZTUNETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
75.003	GIZARTE-ZERBITZU BALIOANIZTUNETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
75.004	GIZARTE-ZERBITZU BALIOANIZTUNETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZE ETA INDARKERIA MATXISTA
75.005	GIZARTE-ZERBITZU BALIOANIZTUNETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARATERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA



29.053	GIZARTE- LANGILEA	80.2.04.1 INFORMAZIO BULEGOA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
88.001	GIZARTEGINTZAKO GOI- MAILAKO TEKNIKARIA	80.2.04 GIZARTEGINTZA	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
13.019	PSIKOLOGOA GIZARTEGINTZA	80.2.04.1 INFORMAZIO BULEGOA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
29.012	GIZARTE- LANGILEA	80.2.04.1 INFORMAZIO BULEGOA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
29.051	GIZARTE- LANGILEA	80.2.04.1 INFORMAZIO BULEGOA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA
54.020	ADMINISTRARIA	80.2.04.1 INFORMAZIO BULEGOA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	80.2.06 GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTA